

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAREN 55. URTEURRENA

ESPEDIENTEA: 2026TDIR0001

INTERESDUNA: KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA (IFK: G20640645)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 5.000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ren alde, finantzatzen laguntzeko 2026. urtean antolatuko duen Luis Ezeiza 55. Urteurrena Debagoieneko eskola publikoaren egunean.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kultura teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako fiskalizazio txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ren (IFK: G20640645) artean egin beharreko hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA.- KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ri 5.000 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa(k) antolatzeko: Luis Ezeiza 55. Urteurrena Debagoieneko eskola publikoaren egunean.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60. ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 5.000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko partidari egoztea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026TDIR0001-Alkate erabakia/Resolución (KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKART